

EHBILDU UDAL TALDEAK AURKEZTUTAKO MOZIOA: UKRANIAKO GERRA

Ukrainan gerra piztu izanak ondorio larriak ekarriko ditu Ukrainako herritarrentzat. Tragedia humanoa hasi da: guztia galduko duten herritarrak izango dira, zaurituko direnak, hilko direnak. Haur eta gazte belaunaldi bat betiko markatu duen gerra piztu da egunotan. Eta Europako gainerako herritarrengan ere une honetan pentsa ezinezko ondorioak ere ekar ditzake, gerra bat nola hasiko den aurreikusi bait daiteke baina inoiz ez nola amaituko den.

Honen guztiaren aurrean, Oñatiko udalak zera adierazi nahi du:

- 1.- (Zentzurik gabeko) Gerra hau lehenbailehen amai dadila eskatzen du.
- 2.-XXI. mendean, ez Europan eta ez inon, gerra ez da gatazka politikoak konpontzeko tresna.
- 3.- Udalak instituzio gorenei eskatzen die gerra amaitzeko diplomaziaren aldeko hautu irmoa egiteko.
- 4.- Aldi berean, udalak kezka ikusten du mundu mailan potentzia guztiak sortzen ari diren blokeek elkarren kontra daramaten mehatxu militar, ekonomiko eta teknologikoa.
- 5.-Azkenik, gure elkartasuna zintzoena helarazi nahi diogu Ukrainako herriari, eta gerra hau Ukrainako herritarrengan sortzen ari den sufrimendua arintzeko udalak dituen ahalmenen arabera bitarteko guztiak jarriko dituela agintzen du.

IZARO
ELORZA
ARREGUI -
15396342G

Digitalki sinatuta
norengandik:
IZARO ELORZA
ARREGUI -
15396342G
Data: 2022.03.28
09:58:46 +02'00'



Egiaztapen Kode Segurua/Código Seguro de Verificación: **SIER9b9f68ea-ae14-4b2c-9af2-cee528b46ab3**

Dokumentu elektroniko honen paperezko kopiaren osotasuna eta sinadura egiaztatzeko, sar ezazu egiaztapen kode segurua egoitza elektronikoan:
<https://uzt.gipuzkoa.eus?De=05910>

Compruebe la integridad y firma de la copia en papel de este documento electrónico, introduciendo el código seguro de verificación en la sede electrónica: <https://uzt.gipuzkoa.eus?De=05910>